




EGAPO

2020ko maiatza - 19. zenbakia

Goizuetako
aldizkaria



Urteak joan eta etorri,
hainbat kontu zahar eta berri



zenbaki honetan



• **Argitaratzailea:**
Goizuetako kultur taldea eta Goizuetako Udalaren Euskara Zerbitzua

• **Irudiak:**
Alai Zubimendi, Alaitz Eskudero, Antton Mari Mitxelena, Eli Apezetxea, Esteban Arotzena, Itsaso Lujanbio, Joxe Jabier Etxeberria eta Yoni Salaberria.

• **Diseinua:**
Allende Arnaiz

• **Maketazioa:**
astidiseinua.com

LG NA 742-2016



aurkibidea

- **3**..... Aurkezpena
- **4-9**..... Goizueta inguruko burdinolak
- **9-11**..... Ba al dakite euskaraz sare sozialek?
- **12-14**..... Goizuetan ere... salda badago!
- **15-18**..... Goizueta iruditan: Eli Apezetxea
- **19-21**..... Bidaia: Mexiko
- **22-23**..... Goizuetari buruzko hainbat bitxikeria
- **24-25**..... Iñauteriak eta mozorroak
- **26**..... Denborapasak
- **27**..... Goizueta, euskararen arnagune
- **28**..... Bertso txokoa
- **29**..... Atzera begira: 2000. urtea
- **20-31**..... Ezetz asmatu
- **32**..... Zure txanda





Esan beharrik ez dago, 2020. urteko XAPO une berezi batean sortu eta iritsi da. Aldizkaria idazten eta osatzen ari ginen garaian, COVID-19 gaitzak eragindako etxealdia eta itxialdia etorri da. Horrek ez du galarazi, noski, XAPOren XIX. zenbakia ateratzea, teknologiak horretarako aukera eman baitigu. Eta hementxe duzue, zuen eskuetan, aldizkaria.

Lerro hauek idazten ari garen momentuan, egia esan, ez dakigu krisi honek guztiak zer ekarriko digun, ez epe luzean, ez ertainean, ezta, egia esateko, epe motzean ere. Baina XAPO

aldizkariaren helburuak eta asmoa, Goizuetako ezagutza indartzea, Goizuetari buruzko informazioa eta jakin-garriak zabaltzea, denok elkar ezagutzeari, herritarren artean elkar ezagutzeari, herritarren artean elkar ezagutzeari... horiek, etxealdia etxealdi, berdin mantentzen dira, eta horregatik etorri gara berriz zuen artera.

XIX. zenbaki honetan, ohi bezala, denetik izanen duzue. Kontu zaharrak eta berriak, hitzak eta irudiak. Burdinolen inguruko erreportajeak, "atzera begira" eta "ezetz asmatu" atalek, esate baterako, beste garai batzuetara eramanen dituzte gure begiak eta gogoak.

Sare sozialen eta gazteen ingurukoak, berriz, gaur-gaurko errealitatearekin eta gaurko gazte goizuetarren eguneroko bizitzarekin lotuko gaituzte.

Kontu eta gai gehiago ere badira aldizkarian, eta guztiek ere Goizuetan dute hizpide. Begirada eta ikuspegi ezberdinak, adin ezberdinetako jendeak egindako ekarpenak, irudi gustagarriak, galdetegiak, bizipenak... Gauza asko, goizuetarron gustukoak izanen direlakoan, eta herriari, eta herritarrei, ekarpen bat egingen dietelakoan.

Besterik gabe, goza ezazu aurtengo XAPOrekin, horretarako egin dugu-eta.





Goizueta inguruko burdinolak

Artxiboetako dokumentuetan 26 burdinola azaltzen dira Goizuetako plazatik 8 km-ko bueltan. Aurreneko agiriak XIV. mendekoak dira, baina lehenetik ere burdinola hauetako batzuk lanean ari ziren, nahiz ez jakin noiztik.

Azkeneko nik aurkitutako dokumentuak 1860. hamarkadakoak dira eta garai horren inguruan, asko luzatu gabe, burdina egiteari utzi zioten.

Urte batzuk lehentxeago Bizkaiko labe handiak burdina galdatzen hasiak ziren eta, labe horien aurka merkatuan saldu ezinik, burdinolak, indarrrik gabe, pixkanka desagertzen joan ziren.

BURDINOLETAKO ZURA ETA TRESNERIEN IZENAK


XVIII. eta XIX. mendeetan Goizuetako eskribau edo notarioek burdinolez egindako dokumentuak asko dira. Errentamenduak, tresnerien inbentarioak, eraikin, presa, antepara eta tresna egiturak eta konponketak... Notario hauek erdaraz, gaztelaniaz, idazten zituzten dokumentuak, baina agiri horietan zura eta tresnerien izenak batzuetan gaztelaniaz eta besteetan euskaraz jaso ziren. Gehienetan bi hizkuntzetan azaltzen dituzte, gaztelaniaz eta euskaraz, Goizuetako zurgin eta burniarotzak euskaldunak zirelako. Notarioak berak ere euskaldunak ziren mende haietan. Burdinoletan erabilitako 270 hitz aurkitu ditut Goizuetako notarioen dokumentuetan, 1700. urtetik 1860. urtera, eta gehienak euskarazkoak dira.

Goizueta herritik 8 km. inguruan 26 burdinola azaltzen dira artxiboetako dokumentuetan (XIV. mendean aurren agiria, XIX. mendean azkena)

XVIII. mende hasieran 15 burdinola ari ziren lanean		XVIII. mende aurretik desagertuak	Burdinolen lekua ez dakigu
9 hauek 1860. urtean lanean ari dira	Lehendik geldituak		
<ul style="list-style-type: none"> • Elama • Goizarin • Artikutza • Añarbe • Arranbide • Alduntzin • Olatxo • Ibero • Zumarresta 	<ul style="list-style-type: none"> • Olaberria (Goizuetako herriarena) 1790 inguruan • Olazarreta 1730 inguruan • Zibola 1730 inguruan • Urdinola 1820 inguruan • Ollin 1790 inguruan • Asura 1740 inguruan 	<ul style="list-style-type: none"> • Urdallu • Berdabio • Altzate • Uarrin, Aranola • Eleuna • Neku 	<ul style="list-style-type: none"> • Akerrola • Sobreola • Maizola • Eskutxola • Lombardola

Burdinoletako 270 hitz Goizuetan (Hitzetako batzuk... gaur galduak daude)

• Mandio	egurrezko ohol lodia (tablón 8-15 cm), batez ere presa eta anteparetan erabiliak
• Ursa	aizkoraz egindako ohol motzak, ikazkin, meatzarien txabolak eta teilatuak egiteko
• Errezuma	zura inklinatu batzuk, euskarritako erabiltzen dira (ostikoa)
• Pordoin, pordoka	egurrezko zutabea
• Zinguna	azpiko zutabe lodi bat, errezumak eta txinelarekin, frontalak eutsi eta lotzeko, egurrezko antepara eta zubi guztietan azaltzen dira
• Zugaraza	landu edo moldatutako zurajea
• Azkazan	ateburu eta leihoburuetan barren aldeko zura edo harria
• Mairuabea	bergamazo bazterreko zutabea, bergamazo pareta ttikia denean
• Asia	burdin txatarra
• (H)ormabetea	izkin harri landua, harri landutako arku dobela, gainharriak... (piedra sillar)
• Allua	minazuloko sarrera



Goizuetan OLABERRIA BURDINOLA eta errota

BURDINOLAK

Burdinola edo burni fabrika hauek 20 eta 35 metro tarteko luze, eta beste hainbeste edo gutxiago zabal zuten eraikinak ziren. Mendi kontran ikatz gelak edo ikaztegiak, bat edo bi, eta ondoan lantegia. Alondagia, gizategia eta kamaña ere bazeuden, langileek jan, egon eta lo egiteko; burningela ere bai, burdin landua bildu eta gordetzeko.

Lantegian sutegiak, gabitegiak eta hauspotegiak zeuden. Kanpoko aldetik estolda-paretaren kontran anteparak, urez beteta, eta antepara azpian gabierrotak, hauspoerrotak, haizarka eta estolda edo irteerako ubidea. Antepara garaialdetik urtegi koxkor bat, eta ubide edo kanala errekan zegoen presatik ura ekartzeko.

Hauspo eta gabiak mugitzeko ur indarra erabiltzen zuten. Transmisio loturak hauspoardatzak eta gabiardatzak izaten ziren, eta hauspoerrotak eta gabierrotak antepara azpian kokatuak zeuden. Horien guztien bitartez ur jausiaren indarrak baliatzen ziren. Haizarka ere antepara azpian, ur jauziaren bidez sutegi ttikira haizea emateko.

Goizueta inguruan presa eta antepara guztiak egurrezkoak ziren

XVIII. mendera arte. XVIII. mendean presa gutxi batzuk harrizkoak egin ziren. XIX. mendean antepara batzuk, gutxi, paretak harrizkoak eta ur zola egurrezkoa. Presa eta antepara gehienek zurezkoak iraun zuten burdin lanak bukatu arte.


Burdinola hauen ondoan arragoa edo arrago-zuloa egoten zen, mea erre eta garbitzeko, kisulabe gisakoa. Inguruko denen artean, sei arrago arkillu batzuekin eginak zeuden, arkilluak azpiko aldean kokatuta.

Baita ere, normalean, ondoan bertan etxebitza bat eta borda bat edo beste egoten zen, jendearentzat eta abereentzat.

Irin errota ere izaten zen burdinola batzuetan, bertako anteparatik ura hartuaz. Asuran burdinola, etxebitza eta bordak zeuden 1722 baino lehenagotik. Urte hartan munizio fabrika berria lanean hasi zen burdinola zegoen lekuan eta baseliza bat egin zuten etxebitza ondoan. Zumarrestan burdinola, bordak eta etxebitza zeuden 1728 arte, eta urte hartan burdinola ondoan beste munizio fabrika bat hasi zen lanean, garaialdean baseliza eta tabernarekin.

Urdinola - arragoa

mea orretzeko



BURDIN LANA

Burdingaia inguruko mendietan ateratako mea beltza eta zuria zen, eta bien nahasketa arragoan egiten zen.



Somorrostrotik ekarritako mea ere erabiltzen zuten azken mendeetan, bertako mearekin nahasteko.

Egur-basalanak eta ikatz-lantegiak inguruko mendietan ziztuzten.

Burdin mea eta egurra menditik arrago ondoko estalpera mando gainean garraiatzen zen, eta burdinolako ikaztegiara ikatza.

Mea garbitu eta txikitzeko erre egiten zen, arragoa meaz beste egurrarekin batera eta sua emanez. Arragoa hustu ondoren, erretako mea esku mailuz kolpeka txikitu, 5 bat cm-ko koxkor handienak eginez.

Urdinola - tresneria



Txikitutako mea eta ikatza burdinolaren sutegi handi edo labean sartuaz, eta hauspo haizez indartutako ikatz su honetan mea urtu ondoren, burdina lortzen zuten, agoa edo zamarra deitzen zioten 100 bat kiloko burdin masa zakar bat.

Sutegitik hartu agoa eta gabipean mailukatuz moldatu eta estutu, bur-

din totxo bat egin arte.

Gero totxo hau sutegian berotuz, gabi handi nahiz zeharrolako gabi azpian kolpeka luzatu eta mehetu.

Burdin mehetu hau olatxoko sutegian berriz berotu eta gabi ttiki edo martinetean lantzen zen: iltzeak egiteko, barrak, burdintxoak, erre-minta...

Bukatutakoan burningelan pilatu, eta gero, mando gainean, landutako burdin hau normalean Errenteriko portura edo Donostiakora garraiatzen zuten, Baionara eta beste lekuetara eramateko. Errenteritik bueltakoan Somorrostroko mea ekartzen zuten, bertako mearekin nahasteko.

LANGINTZA ETA JABETZA

Burdinolako jabeak, udala izan edo nagusi pribatua izan, XVIII. eta XIX. mendean behintzat, lantegi hauek eta beren mendietako eskubideak, egurra, ikatza eta mea errentan ematen zituen. Lau, sei edo urte gehiagoko kontratuak, diruaren truke normalean, beste batzuetan dirua eta burdin landuaren truke.

Jabearen kontura presa, antepara, eraikinen egitura, tresneria eta matxura handiak.

Errentarien kontura izaten ziren tei-latu konponketak, presa eta antepara alidokiatsu edo istinkatzea, matxura normalak eta burdinola osoa mantentzea. Lan horiek egiteko **harginak, zurginak eta hauspogileak** kontratatzen zituzten; garraiorako, berriz, **mandoak mandazainekin eta idiak itzainekin**.

Errentan hartu zuen horrek berak kontratatzen zituen basalanak, ikazkinak, meatzariak, mandazain eta mandoak, mea, egurra eta ikatza arrago edo burdinolan sartu eta burdina egiteko.

Bere kontu baita ere burdinolako langileak, 10 edo 11. Burdinola batek 40 edo 50 lanpostu denetara.

Arrago eta burdinolako lanetan

- mea erretzaile bat edo bi arragoan
- mealea eta urtzailea, mea txikitu eta sutegi handian mea urtu eta agoa lortzen
- gabiarotza eta ielea gabi handian agoa moldatu, totxoa egin eta luzatzeko
- martineteko maisua eta arotzak burdina landu eta bukatzeko
- prestatzailea mantenua prestatu eta lan guztietan laguntzen

Beste lanetan

- meatzariak meatzetatik mea atera eta biltzen
- mendian basolanak egiten zituztenak, eta ikazkinak ikatza egiten
- mandazain eta itzainak mea, egurra, ikatza, zurak eta burdina garraiatzen
- zurgin, hauspogile eta harginak eraikin eta tresneria lan eta konponketan



OLABERRIA burdinola Goizuetako herriarena zen eta bere lantegia errentan emateko arduraduna Udala. **OLAZARRETA**. XVI. mendean Fermín de Arano azaltzen da jabe gisa. XIX. mendean Areizagatarren eskuetan azaltzen dira burdinola desegina eta bere mendi-egurren eskubideak.

ALDUNTZIN. Bi burdinolen nagusiak Anduncin dira XVIII. mendearen erdira arte; geroztik, eta ezkontza bidez, Areizagak azaltzen dira burdin lanak bukatu arte.

ELAMA. Nagusi gisa Dubois eta gero Lardizabal azaltzen dira. Burdinolaren lur-eremua Orreagarena 1844 arte.

GOIZARIN, ARTIKUTZA burdinolen eta Artikutzako mendien jabea Orreagako Kolegiata izan zen 1844 arte. Desamortizazio bidez **Elama, Goizarin, Artikutza** burdinolen eta Artikutzako mendien jabetasuna Nazario Carriquiri eta Jose Fagoagak hartu zuten.

ZIBOLA, URDINOLA eta ELEUNA burdinolatan XVII. mendean Bergarak ziren nagusiak, gero Alduncin familia sartu zen ezkontza bidez eta lanak bukatu arte Alduncindarren eskuetan iraun zuten.

IBERO burdinolan, lehendik beste batzuk izan ziren, eta XVII. mendean

Alduncin bat azaltzen da jabe. Gero, herentziaz, Larreta y Acelain. XVIII. mende bukaeran Minondo sartu zen ezkontzaz, eta ondoren XIX. mendean jabe eta nagusi Minondotarrak azaltzen dira, lanak gelditu arte.

OLLIN burdinolaren jabea Zubiri, Goizuetako notario bat, azaltzen da XVIII. mende hasieran. Pleitu baten ondoren Ezkurrako Udala azaltzen da matxura eta makinak pagatzen XVIII. erditik aurrera.

ASURA jauregi eta burdinolaren jabeak XVII. mendean Pedro de Erasun, eta semea Juan, azaltzen dira. 1713. urtean Miguel de Arizcun baztandarrrak erosi zuen Asura. Saltzailea Miguel Antonio Alduncin, Zibolakoa.


ZUMARRESTA / ITURBIETA burdinola Miguel de Arizcun semeak erosi zuen 1725. urtean, saltzailea Iturria. Geroztik eta burdin lanak bukatu arte Arizcun familiaren eskuetan egon ziren Asura eta Zumarresta.

ARRANBIDE burdinolaren jabeak Lopez de Legarra. Gero Añues eta ondorekoak izan ziren, lanak gelditu arte.


AÑARBE burdinola Errenteriako herriarena zen eta Udalak errentan ematen zuen, enkante bidez.

Antton Mari Mitxelena

Goizueta inguruko burdinolak herriek 8 km barru



Burdinolak ●
Errekak —
Herri mugak ----



Egilea: A. M. Michelena

ALDUNTZIN (Arraokoa) Aztarna asko dago.

ALDUNTZIN OLATXO Aztarna asko dago.

Minerala, egurra eta ikatza egiteko eskubideak Goizuetako mendietan zituzten.

AÑARBE Aztarnak Añarbe urtegiaren urpean daude. Burdinola Errenterian dago, Goizuetako muga ondoan, eta minerala, egurra eta ikatza egiteko eskubideak Errenteriako mendietan.

ARRANBIDE Aztarna gutxi dago. Burdinola Aranon dago, Goizueta eta Errenteriako muga ondoan, eta mendien eskubideak Goizuetan, gaur Elkartasunaren mendiak.

ARTIKUTZA Aztarnarik gabe. Mendien eskubideak Goizuetan, Artikutzako mendietan.

ASURA Aztarna gutxi dago. Asura Eratsunen dago eta mendien eskubideak Eratsun eta Beintza-Labaiengo mendietan.

ELAMA Aztarnak badaude. Mendien eskubideak Goizuetan, Artikutzako mendietan.

GOIZARIN Aztarnak badaude. Mendien eskubideak Artikutzako mendietan.

IBERO Aztarna asko dago. Burdinola Leitzan dago, Goizuetako muga, eta mendien eskubideak Goizueta eta Leitzako mendietan.

OLABERRIA Aztarna gutxi dago. Goizuetako herriarena zen eta mendiak Goizuetakoak.

OLAZARRETA Aztarna batzuk badaude. Mendien eskubideak Goizuetan.

OLLIN Aztarnarik gabe. Burdinola Ezkurran zegoen, Leitzako muga, eta mendien eskubideak Ezkurran mendietan.

URDINOLA Aztarna asko dago. Burdinola Leitzan dago, Goizuetako muga, eta mendien eskubideak Goizueta eta Leitzako mendietan.

ZIBOLA Aztarnarik gabe. Minerala, egurra eta ikatza egiteko eskubideak Goizuetako mendietan.

ZUMARRESTA, ITURBIETA Aztarna asko dago. Burdinola eta munizio fabrika Eratsunen eta mendien eskubideak Eratsun eta Beintza-Labaiengo mendietan.



Ba al dakite euskaraz sare sozialek?



Goizuetako gazteak, sare sozialak eta euskara.

Sare sozialak (WhatsApp, Instagram, Snapchat, Youtube, Twitter, Facebook...) eguneroko ogi bihurtu zaizkigu. Gazte nahiz helduok ibiltzen gara maiz sare horietan, baina, ziur asko, gazteak dira gehien erabiltzen dituztenak. Horiekin hazi direla esan liteke.

Irudia garrantzitsua da sare horietan, jakina, baina baita hitza ere. Alegia, hizkuntza erabiltzen dela sareetan, eta, horrenbestez, hor ere bada-goela hizkuntzen arteko nolabaiteko lehia, eta bata edo bestea nagusituko da. Gure inguruan, euskara eta gaztelania erabiltzen dira nagusiki, baita ingelesa ere neurri batean.

Sare sozialei eta hizkuntzaren erabilerari buruz galdetu diegu Goizuetako 10 gazteri, 13 eta 17 urte bitartekoak denak. Gazte horiek emandako erantzunak, argibideak edo azalpenak ekarri ditugu hona, gutxi asko goizuetar gazteek bizitzen eta pentsatzen dutena jakiten lagunduko digulakoan.

Sare sozialen eguneroko erabilera

Sare sozialak egunero erabiltzen dituzte gazte hauek. Kontatu digutenez, ordubetz aritzen da gutxien ibiltzen dena, eta lau orduz gehien aritzen de-

na. Batez beste pare bat ordu. Erantzun dutenetako bik aipatu dute, bestalde, "behar baino gehiago" aritzen direla.

Zertarako erabiltzen dituzte?

Erantzun ia ahobatezkoa hauxe izan da: lagunekin egoteko. Hori da, itxuraz, erabilera pisuzkoena, lagunekin egotea (baita familia eta ezagunekin ere) eta haien berri izatea. Horrekin batera, dezente aipatu dute entretenitzea, eta bideoak edo argazkiak ikustea. Gutxiago, baina informatzea ere sare sozialak erabiltzeko arrazoi bat izaten omen da.

Ezinbestekoak dira? Lagungarriak?

Bakar batek jo ditu ezinbestekotzat, ez aspertzeko hain zuzen ere. Gainerakoan iritziz lagungarriak dira, edo "oso lagungarriak", baina ez ezinbestekoak. Hala ere, ñabarduren bitartez adierazi dute lagungarriak izateaz gainera "asko engantxatzen dutela" eta berez ezinbestekoak ez diren arren ia-ia hala bihurtzen ari direla, bereziki konfinamendua bezalako egoeretan.

Zein dira gazteok gehien erabiltzen dituzuen sare sozialak?

Gehien aipatu dena Instagram da (9 aipamen); ondoren WhatsApp (7); Snapchat (5); Youtube (3); Spotify batek aipatu du. Twitter eta Facebook, helduen artean oso zabalduak direnak, ez ditu bakar batek ere aipatu.

Sare sozialetan gehien jarraitzen dituzten pertsona edo taldeak. Adibide batzuk

Emandako erantzunen arabera, ematen du Goizuetako gazteak sare sozialen bitartez gehien jarraitzen dituztenak lagunak direla. Horretaz gain, nolnahi ere, oso ohikoa dirudi pertsona edo talde ezagunak jarraitzea. Hauek dira aipatu dituztenak: musikariak eta musika taldeak (ETS, Huntuza, Nogen), famatuak, kirol taldeak, futbolariak, bideo-jokoetako pertsonaiak (Thegrefg), dantzariak, Operación Triunfokoak, erakunde famatuak (NASA), umorezko kontuak edo umorezko bideoak nahiz argazkiak.

Zein da sare sozial horietan erabiltzen den hizkuntza? Eta zein da zuk erabiltzen duzuna?

Galdera horri emandako erantzunetan ondorioa nahikoa orokorra da: sare sozialetan erdara nagusi da, gure



kasuan gaztelania gehienbat, baina ingelesa ere bertan dela. Alegia, Goizuetako gazteak ezin direla Zaragoza, Paris edo Berlingo gazteak bezala beren hizkuntzan sare sozialetan ari.

Esan dute, nolana ere, sare sozialak nagusiki erdaldunak izan arren, haien esku dagoen neurrian eta haien esku dagoen zatian, eta lagunekin-eta aritzeko batez ere, euskaraz aritzeko ohitura daukatela. Beren inguruarekin euskaraz aritzen dira, gehienbat Instagram eta WhatsApp sareen bidez.

Hartzaile gisa, eta batez ere Youtuberi dagokionez, kontuak ezberdinak dira. Izan ere, Youtubeko eduki gehienak erdaraz iristen zaizkie, baina horretan harremana norabide bakarrekoa izan ohi da, eta gazteak hartzaile huts izaten dira normalean.

Hutsunerik sumatzen al dute sare sozialetan euskararen erabilerari dagokionez?

Erantzuna, oraingoan ere, argia eta orokorra da. Sare sozialetan hutsune handia sumatzen da euskararen erabilerari dagokionez, eta batez ere YouTube aipatzen dute. Gaztelaniazko aukera askoz ere handiagoa dela adierazi dute baina, horrekin batera, beste ñabardura eta aipamen batzuk ere egin dituzte: adibidez, ongi egonen litzatekeela aplikazioa bera euskaraz edukitzea eta euskaraz egiteko aukera handiagoa izatea, eta, baita ere, euskaraz dakien asko ere erdaraz aritzen dela sareetan.

Sarean euskarazko edukiak bilatzeko ahalegina eta euskaraz argitaratzeko joera

Ikasketekin lotutako kontuak direnean argi dago Goizuetako gazte hauek edukiak euskaraz bilatzen saiatzen direla. Bestelako edukiak direnean ere, azaldu digutenez, ahalegina egiten dute euskaraz bilatzeko, baina ez beti eta ez hain modu argian. Inerziagatik edo euskarazko edukiak aurkitzeko itxaropen gutxi dutelako akaso, baina badirudi zenbaitetan

Aukera eta proposamen batzuk

Goizuetako gazteen erantzunak eta iritziak ikusita, ausartuko gara proposamen bat egiten. Eta hau da: egin dezagun, beti, euskarazko edukiak bilatzeko ahalegina. Egon badaude eta, bilatzen hasten garenean, baliteke sorpresa batzuk izatea eta uste baino gehiago aurkitzea. Eta, bide batez esanda, ikasketetarako euskarazko edukiak bilatu, noski, baina aisialdirako eta entretenimendurako ere bai.

Proposamen zehatz gisa, inkesta erantzun dutenetako batek, Ane Apezteak hain zuzen ere, aipatutakoa ekarriko dugu: "Neri gustatzen zian bat Instagrameko "biyurriena" kontua da, Oiartzungo gazteek sortutako taldea, bertan bromak, retok, jokuk... igotzen ttuzte ta aldi beren besteri animatzen di-

te hori ittea". Horratx adibide bat, begiratzen hasteko.

Bestalde, eta oraingoan Youtubera jota, beste proposamen zehatz bat aipatuko dugu: youtuber euskaldun bat da, Youtubeko bere kanalera hainbat konturi buruzko bideoak igo dituena: Aiora Probatxoa du izena. Bilatzaile batean jarri eta berehala aurkituko dugu.

Horiez gain, eta azkeneko lagin modura, <https://mingainakdantzan.eus/euskal-youtuberrak/> esteka aipatuko dugu. Aiora Probatxoaren erreferentziaz gainera, beste batzuk ere ageri dira bertan.

Bukatzeko, besterik gabe, sare sozialetan ere euskarari eusteko deia egingen diegu Goizuetako gazteei, eta gazteei bezalaxe, baita gainerako guztiei ere. Animo!

ahalegin hori ez dela egiten eta zuzenean gaztelaniara ere jotzen dela informazio edo edukien bila. Eduki jakin batzuk, nolana ere, euskararekin zuzenean oso lotuta agertzen direnak, euskaraz jasotzen dituzte: musika, euskal kantuak, pilota partidak, esaterako.

Edukia goizuetar gazteek argitaratzen dutenean, alegia, haiek sortu edo zabaltzen dutenean, orduan bai, euskaraz egiteko joera daukate, espero zitezkeen moduan.

Gai honi buruzko bestelako gogoetak Zenbait gogoeta egin dituzte, ikuspegi ezberdinetatik abiatuta. Alde batetik, zenbaitek aipatu dutenez, sare sozia-

letan denbora gehiegi ematen da, garrantzi handiegia ematen zaie, eta ordu horietako batzuk bestelako egiteko batzuetan ere eman litezke eta eman beharko lirateke. Eta, beste alde batetik, sare sozialetan euskaraz gehiago aritzeko aukera egon beharko litzateke, eta euskaraz dakien jendeak euskarazko edukiak jarri beharko litzuzke. Euskarazko eduki gehiago beharko lirateke, beraz, gazteentzat bereziki, gazteek ere euskaraz gehiago bilatzeko eta gehiago erabiltzeko. Baten batek aipatu du, halaber, ziur asko uste duguna baino eduki gehiago dagoela euskaraz eta dagoen hori zabaltzea interesgarria izanzen litzatekeela.



**Paula Etxeberria
Arozena (14 urte)**

Nik youtuben sumatzen dut falta gehina. Youtuben, jendek ezto beste sare sozialatan bezainbeste eduki sortzen. Ordun, euskara ibiltzen dun jende gutxio do hor. Ta azkenen hutsune hori nabaitzen da.



**Beñat Apezetxea
Apezetxea (15 urte)**

Sare sozialak lagungarriak dira, ezinbestekoak ez. Euskarazko edukiak? Pilota, kirolak, musika eta abar.



**Uxue Rodriguez
Calzada (15 urte)**

Lagunak eta ezagunak seitzen ttut, bino erakunde famatu batzuk re bai seitzen ttut, adibidez, NASA.



**Aiora Apezetxea
Azpiroz (15 urte)**

Normalen edukik bilatzekon erdaraz beitzen dut, biño eskolako kontutan edo informazioa bilatzekon gehinbat euskeraz beitzen ttut, aixo enteintzen ttualako gauzak erdaraz biño. Nere publikaziok berriz beti euskeraz izaten dia.



**Joanes Apezetxea
Apezetxea (16 urte)**

Sare sozialetan musika entzutea gustatzen zait, Euskal kantuk asko gustatzen zaizkit eta Batxilergo ikasketetan behar ditudan edukiak euskeraz bilatu eta garatzen ditut.



**Egoitz Elizegi Loiarde
(13 urte)**

Nire ustez aspertzen zarenean sare sozialak ezinbestekoak dira, gustatzen zaizun edozer gauza ikusi dezakezulako.



**Aitor Agilar Uitz
(16 urte)**

Sare sozialatan euskara gehio sartuko nuke, ta jende gaztentzat gauza erakargarrik, guk gehio bilatzeko ta euskara gehio erabiltzeko.



**Oier Miranda Garcia
(17 urte)**

Bizitzan ez dira ezinbestekoak, orain dela urte batzuk arte ez baitziren existitzen. Baina nik uste orain ia-ia ezinbestekoak bihurtzen ari direla.



**Ane Apezetxea
Etxeberria (17 urte)**

Berez ez litzake ezinbestekoa izan beharko, garai baten ez zialakoz ixixtitzen re, biño eia da lagungarria dela familiarrakin, launakin, etab, hitzeitako garaian. Eia da, lagungarri hori ezinbestekoa bihurtu dela oain sufritzen ai gan berroialdi hontan, beharrezko faktore bat bihurtu dela sare sozialak eukitzea, fisikoki eon nahiko ziñuken jendekin eon zittekelakoz.



**Janire Urdanpilleta
Zabala (17 urte)**

Uste baino eduki gehiago daudela iruditzen zait euskeraz eta hauen berri izatea interesgarria izango litzateke.



Goizuetan ere...

SALDA BADAGO!

Izenburua irakurrita, askok pentsatuko duzue salda on bat prestatzeko errezetaren bat argitaratu dugula aurtengo zenbakian. Hemen, ordea, ez duzu azenario, porru edo bestelako barazkirik aurkituko. Osagaiak asko, eta sutan dagoen lapiko eder bat ere bai. Eta jakina da, behin lapikoa irakiten dagoenean, sua itzalita ere, honek lanean jarraitzen duela.



2018ko martxoaren 8an jarri zen sutan lapikoa. Milaka eta milaka emakumek erakutsi genuen gu gelditzen bagara, mundua ere gelditu egiten dela. Aldarrikapenez bete genituen kaleak greba feminista hartan, eta erakutsi elkarrekin indartsuagoak garela. Lapikoa burbuilaz betetzen hasia zen.

Puri-purian zegoen “*Manadaren auzia*” eta elkartasun keinuak iritsi ziren #NikSinestenDizut bezalako traolekin. #MeToo traolaren pean emakumeok jasandako hainbat indarkeria kasu argitaratu ziren sareetan. Eta lapikoak borborka jarraitzen zuen.

2019ko greba feministak erakutsi zuen aurreko urtekoa ez zela egun isolatu bat izan. Sistema honekin nazkatuta gaudela, eta hasitako bideak jadanik ez duela gelditzeko asmorik.

2019ko azaroan guztiz arrakastatsua izan zen topaketa egin zen Durangon. Gutxienez 3000 emakume bildu ginen *Salda badago* izeneko topaketan, denak helburu berdinari lotuak: hausnartu, eztabaidatu, elkar ezagutu, saretu eta mugimendu feminista autonomoaren aurrera begirako ildo estrategikoak zehaztea. Eta hala, bazterreko osagaiak erdira eramateko eragin genuen salda hura...

...eta lapiko erraldoi hartako urak zipriztin egin zuten Goizuetan ere

2019an Udalak Autodefentsa tailer bat burutzeko asmoz, herriko emakumeen artean deialdia zabaldu zuen, elkartu eta tailer honen nondik norakoak azaldu eta data bat finkatzeko.



Martxoaren 8an, emakumea leihotik animoak ematen.

Horren aitzakian, kafetxo baten bueltan elkartu eta emakume batzuk gure kezkek eta egonezinak partekatzen hasi ginen. Zaintza lanak dakartzan nekeak, gure desirak eta kezkek elkarrekin partekatzeko momentu bihurtu ziren “bilera” haiek. Elkarren artean eduki ditzakegun ezberdintasunen gaineratik, baditugulako amankomunak diren kezkak eta bizipenak. Hori xe baita *sororitatea* deitzen zaiona. Emakumeen arteko ahizpatasuna hain zuzen ere. Emakumeen arteko elkartasuna eta konplizitatea, beharrezkoa gure arteko sareak josteko. Sororitateak amankomuneko opresioa identifikatzen laguntzen du, gure artean ezin dela etsaitasunik egon ulertuz.

Horrela hasi ginen lapikora osagaiak botatzen

Azaroan, emakumeen indarkeriaren aurkako egunean, kaleak puxika mo-



Lilatoia.





Martxoaren 8ko kalejira.

rez jantzi genituen, eta ilunabarrean kalejira burutu genuen herritik hauek bilduz.

Eta seguruenik guztiok oroituko duzue, Covid-19 ak gure agendak hankaz gora jarri aurretik, herrian izan genuen azken ekintza. Martxoaren 8an morez jantzi eta lilatoian lasterka ibili ginen, kantari, irrintzika eta inoiz baino elkartuago sentituz. Horren erakusgarri, azken urteetan burutu den emakumeen otorduan halako emakume talde eder eta anitza elkartu izana.

Maiatzerako aurreikusita zegoen Autodefentsa Tailerra*. Baina, irakurle maiateok, ez ezazue pentsa tailer honetan karateko posizioak ikasiko ditugunik, ez. Eraso fisikoak baino sakona-



Sororitatea

goak diren eraso sexisten prebentzioa eta emakumeok jasaten ditugun indarkeria desberdinak identifikatzen

ikasiko dugu bertan, bizipenak, emozioak, beldurrak... partekatuz. Horrela ahalduntzea eta autoestimulazioa lantzen ikasiko dugu.

Tailer hau aurreragorako utzi beharko badugu ere, gure modura ahalduntzen segituko dugu. Elkar zaindu eta zaintzan oinarritutako harremanak konpartitzen.

Bota diezaiogun gatza azken urteetako mugimendu sorta honi, borborka ari den saldari guk geuk eragin eta guztiok bertatik edateko.

* Maiatzaren 9an eta 30ean egitekoa zen Autodefentsa Tailerra, baina Covid19ak sortutako osasun krisia dela medio, atzeratu egingo da. Datak zehaztu ahal publiko egingo dira, eta interesatua dagoen oro ongietorria izanen da.



Goizueta iruditan

€ li Apezetxeari eskatu diogu XAPOren zenbaki honetarako bere ikuspegia ekartzeko. Baita enkargua ederki bete ere. Goizuetak dituen alderdi ezberdinak erakutsi dizkigu, irudi ederren bitartez: ura, etxeak, baratzak, mendia, izadia... Goza itzazu, beraz, Goizuetako argazki eder hauek, horretarako dira-eta.

Natura, osasuna, lasaitasuna... bizi kalitatea.



**Ur garbi eta gardena, udara pasatzeko hoberena.
Herri kuttuna, ura falta ez zaiguna.**



Hainbat mendetako etxe ederrak... gure arbasoen opari.



Gure herriko baratzak... bertako produktuetan aberatsak.



Laino pean gordeta, edo laino guzien gainetik.



Pauso batean, mendi gainean.



Gizakiaren bizileku, iratxoen gordeleku, izadiaren paradisu.



Deusen faltaik ez dun herria, elkarrerri launduta irabazia.



Mexiko, begirada berri bat

Duela urte bat gutxi gorabehera, aukera ezin hobea suertatu zitzaidan Mexikora joateko eta bi aldiz pen-tsatu gabe, pausoa ematea erabaki nuen! Betidanik izan dut Mexiko ezagutzeko gogoia, izan ere, bertako janariak, kulturak eta historiak kuriositate haundia sortarazten dit. Esan beharra dut, nire lehenengo bidaia izan dela gure kontinentetik kanpora, baina seguru ez dela azkena izango.


Bidaiatzeak, gure bizitzako gauza guztiak bezala, bi aurpegi ditu. Alde batetik gauza onak eta bestetik txarrak.

Nire bidaia Mexikoko Colima estatuan hasi nuen, Manzanillo izeneko herri txiki batean eta gero Mexikoko DFn (Distrito Federal) amaitu zen.

Manzanillo kostaldeko hiri txiki bat da, Kataluniako Costa Brava ekartzen zidan burura eta ez nenbilen oso oker. Gure penintsulatik joandako pertsonak eraikitako hiria baita. Merkataritza eta turismo indartsuko hiria da. Lasaitasuna da nagusi bertan. Adibide bat jartzeko, Mexikoko Manzanillo hiria hemengo Donostia bezala izango litzateke.

Mexikoko DF, aldiz, guztiz kontrakoa da. Mugimendua, jendearen joan-etorria, autoak hara eta hona, janaria eta usain oso ezberdinak topatzen dira uneoro kaleetan. Zerbaitegatik dago munduko hiri mugituenen artean.

Inolako dudarik gabe, leku bat bertako biztanleek definitzen dute. Mexiko, gure herrialdea bezala, pertsona langilez beteta dago. Eguneroko ogia irabazteko lan egiten dutenak, batzuk estres gehiagorekin eta besteak gutxiagorekin...



Mexikoko txanponaren izena pesoa da. Geure lehen-go pezetaren balio antzekoa du. Bertan ageri den irudiak oso interesgarriak dira. Nopala (Mexikoko kaktus jangarri bat), sugea eta, noski, arranoa.

Mexikarrak geure oso antzekoak dira, agian gure izakera pixkat itxiagoa da. Lehenengo egunetik irriparez, algarka eta eskuzaballik hartu ninduten! Hemen nago Mariorekin Mexikoko edari ezberdinak probatzen!



Mexikok artearekiko lotura oso estua du. Bertako lagunekin Sokaloko (Distrito Federalesko zentroa) txoko artistikoenak bisitatzeko aukera izan nuen. Muskariz, margolariz eta dantzari bezalako kaleak. Bertan ikasi nuen artea bizitzeko modu erabat berria. Artearen bidez pozera heltzeko modua.



Bertako panorama gurearen oso antzekoa da, paper edo rol berdina aurpegi ezberdinekin. Pobreak eta dirudunak, klase sozial ezberdinak daude gurean bezala baina, hori bai, klaseen arteko diferentzia nabarmenagoa da. Gune aberatsak eta txiroak ezagutzeko aukera izan dut, baita bertako jendearekin euren etxeetan egun batzuk igarotzekoa ere.

Hau agian subjektibitatean sartzea izango da, baina neure esperientziaren arabera, gehien dutenak dira gutxien ematen dutenak eta gutxien dutenak berriz gehien ematen dutenak.


Bertako kulturarekin kontaktuan jarri bezain pronto hasi nintzen haien egunerokotasuna bizitzen, ulertzen eta disfrutatzen. Izan ere, bidaiatzeaz gain bertan lanean ere aritu nintzen elkar laguntzen genuelarik.

Bertako gosariek atentzioa eman zidaten, egunero goizetan pastel mota batzuk jateko ohitura dute. "Pan" deitzen diote beraiek baina nik napolitana gisako batzuk ikusten nituen, jajaja. Kafe asko hartzen da bertan baina kafe disolbagarria.

Janariari buruz, bai, pikantea da nagusi alde guztietan. Batetik, broma dirudien arren, ahoa sutan eta mingainean mina sentitzen nuen. Bestetik, kolore guztietako saltsak eta berdurak ikusi eta probatzeko aukera izan dut. Ikaragarria da bai dastamenarentzat eta baita garapen pertsonalerako ere.

Kultura bat eta pertsona berriak ezagutzuz, zeure barruan ere gauza berriak ikasten hasten zara. Gauza horien artean, txikitatik barruan dituzun beldurren gutxitzea dago. Betidanik entzun izan dugu guztiok Mexiko zeinen arriskutsua den edota zenbat hildako eta sikario dauden. Baina ikusi nuen askotan pertsonak euren iritzia telebistan ikusten dutenarekin edo norbaiti entzun diotenarekin eraikitzen dutela eta ez bizipen propioekin.

Kultura eta pertsonen arloa gehiago jorratuz, atentzioa eman zidan Mexikoko artearekiko daukan lotura estuak. Geure herrialdeetan, artea salduz edo artetik bizitzea, oso zaila da momentu honetan. Han, berriz, egunero erretratoak saltzen egon zaitezke eta bai,



Mexikon fama handiena duen janaria, inongo dudarik gabe, tortilak dira. Geure taloaren antzeko kontzeptua. Tortilak berduraz, frutaz nahiz haragiz beteta jan daitezke. Baina kontuz, leku askotan saltsa pikantea jartzen dute zu ohartu gabe, jajaja.

txanpon mexikarrak ez du ezer balio hemen, baina bazeuden han ere gure inguruko pertsona asko, eurotan edota dolarretan ordaintzen zutenak! Eta hori, noski, Mexikon bizi den edonorentzat asko da.

Musika, dantza, pintura... oraindik garapen izugarrian dauden arloak dira Mexikon. Bertan, musiko, produktore eta abeslari mordo bat ezagutu nituen eta baita primerako ikasketak jaso ere. Kontzertuak, antzezlanak, dantzaldiak... ikuskizun ikaragarriak ikusi nituen.

Mexikon 3 bat hilabete egon nintzen eta familia faltan botatzen da, gehienbat beraiei buruz dakizun guztia mobil batetik heldu zaizunean. Baina neure izateko modua errespetatu zuten eta hori eskertzekoa da.


Oso garrantzitsua da non gauden ikustea, nola bizi garen eta bizitzako esparru batzuetan ze zortea daukagun baloratzea. Izan ere, errealitatea ikusteko era honekin errazago ikusiko dugu zer dugun hobetzeko.

Horren inguruko ikasketa sakonena (nere ustez) bidaiatzea da. Gauzak barrutik, kanpotik, gertutik eta urrutitik ikustea. Esaten den bezela, zuhaitzek ez dute basoa bere osotasunean ikusten uzten, mendi baten gailurrera igoz gero, berriz, baso osoa ikus genezake. Ba hau ere berdina da, perspektiba kontua, bizitza eta esperientziak bizi, ikusi, ikasi eta gero hausnartu egin behar dira.

Yoni Salaberria




Mexikoko Donostia da neuretzat Manzanillo, bertako inguruak oso lasaiak dira eta oso-oso leku turistikoa da. Bertako sinboloa da ezpata-arraina eta hiriaren erdian dago.







Familia ezberdin piloa ezagutzeko aukera ezin hobea izan nuen. Honako mutiko txiki hau Uris da. Berak erakutsi zidan gauza askoren beharrik ez dagoela poza sentitzeko.



Ecatepec, DF ko kolonia arriskutsuena bezala jota dago. Baina gauaren ixiltasunean, bere edertasuna ikusteko gai da edonor. Animalia basati bati begietara begiratzea bezala da.

Neure lekurik gustukoena agian. DF ko zentroan dagoen artearen etxea da. Artea eta artistak inoiz baino estuago mantentzen dituzten paretak. Garai ezberdinetako artisten lanaz beteriko txokoa!

Mexikoko DFko zentro-zentroan dago bandera hau! Ez dirudi, baina ikaragarritzko tamaina dauka, oso ederra da haizearekin egiten duen mugimendu lasaia ikustea.





Goizuetari buruzko hainbat bitxikeria

Goizueta herri txiki bat da, Nafarroan dago kokatuta, Nafarroa iparraldean. Herri txiki bat izan arren istorio politak gordetzen ditu bere barruan eta horietako batzuk hemen azalduta daude, Xapo aldizkarietik hartutako hainbat pasarte bilduta agertzen direlarik. Batzuk ezagunak dira, baina beste batzuk, berriz, guretzat, DBH 1 eta 2. mailakoentzat, ezegunak. Gehiago jakin nahi?

Goizuetan egondako lehen biztanleak

Añoneko trikuharria, ongi kontserbatuta dagoena, k.a 5000 urte inguruko eraikina da. Indoeupearren lehenengo inbasioan altxatu zen eta gizakiek taldean lurperatzeko eraiki zuten. Hortaz, Goizueta Historiaurretik dago presente.

Añonetik gora Errekalkuko lepoa (660 m) dago. Mairu-baratze bat dago han eta ikusgarriena Ugaratako mairu-

baratzea da. Euskal Herriko multzorik garrantzitsuenetako bat da, orain dela 2.600 urte eraiki zela uste dute adituek. Mairu-baratzeak zirkulu formako harrien multzoak dira, tamaina ezberdinekoak izaten dira. Monumentu megalitiko hauen erdian errautsak gordetzen zizuten. Aitasemegi aldean monumentu megalitiko asko daude. Hau da, aspaldiko eraikin asko daude Goizueta herri txikiko mendietan.

Goizuetan mairu-baratzeak eta harrespilak dira garrantzitsuenak eta horregatik jakin dezakegu orain dela 6.000 urte bizi zela gizakia.

Nondik dator Goizueta izena

1188an *Goizubieta* izena agertzen da lehen aldiz eta izendapen hau Anizlarrea baino zaharragoa omen da. Diotenez, Zubi Handiak ematen dio izena herriari. Urumea errekaaren alde banatan dauden bi auzoak elkartzen ditu zubiak, eta eti-

mologikoki izena honako elkarketatik datorrela diote: goi + zubi + eta (toki izena adierazten duen atzizkia), goiko zubiaren lekua esan nahian. Garaiko beste dokumentu batek adierazten duen moduan, Goizueta Baionako diozesiaren menpe zegoen. 1189 inguruan Iruñako gotzainak dohaintzan eman zizkion Baionako gotzainari hainbat udalerrri: Goizueta, Labaien, Donostia eta Hernani, beste hainbatekin batera.

Goizueta Anizlarrearen menpe

Anizlarrea lurraldeen lehenengo erreferentzia idatzia 1270ekoa da, Lopez Diaz de Haro III.ak (Bizkaiko jauntxoa) egindako eskaintza bat aipatzen duen dokumentu batean jasoa. Anizlarrea izena Arano, Goizueta eta Artikutzak osatzen duten paraje osoak hartzen zuen.

1270. urtean Lopez Diaz de Harok sari moduko bat eman zion Orreagari,

erreportajea



Zubi Handiak zubia.



Magdalena.



Añoneko trikuharria.



Alduntzin jauregia.

Anizlarrea eman zion opari. Modu horretan abeltzaintza-igarobidea hedatu zuen Orreagak Nafarroa-Gipuzkoako mugaraino.

Basaburua txikia

Garai batean Basaburua Txikia izeneko eskualde edo bailara historiko bat egon zen. 1757an Goizueta Basaburua Txikia izeneko bailara historiko horren parte izaten hasi zen. Goizuetaz gain beste herri batzuk ere hartzen zituen. Ezkurra, Labaien, Saldias eta Eratsunek osatzen zuten hasieran eta gero Goizueta, Arano, Areso eta Leitza elkartuko zitzaizkien, 1757an.

Ordenantzak

XIX. menderako Goizuetako Udalak bazituen ordenantzak euskaraz. Ordenantzak luze samarrak ziren, labur-labur paragrafo batean ezin dena azaldu. Baina, irakur daiteke, esaterako, 1897ko ordenantzako 8. puntuan: *“Zortzigarrena. Carnabaletan permititucio da ebiltzea caleetan mozorroac*

careta edo mascaraquin, baño careta edo máscara quendu biarco du avemari ezquilla jotcen dan becin pronto”. Esaldi horren arabera XIX. mende bukaeran Goizuetan inauteriak ospatzen zirela ikus dezakegu.

Goizueta erdi aroan

1430. urtean gaztelarrek herria erre egin zuten eta, horren ondorioz, hamar urtez gaztelar erregeak ez zuten bertan kuartelik ezarri. 1440. urtean, dorrea eta gotorlekua eraikitzeko aske gelditu zen. 1451n, Karlos Zabaleta Otsoa Lopizko jauna ageri da herriko gotorlekuko kapitain eta agintari; horren agindupeko lurrak Bortzirietaraino hedatzen ziren.

1468an, Goizuetarrek gaztelar erregeari 20 arditako petxa ordaintzen zioten. Leonor printzesak lurrak Orreagako monasterioari eman zizkion, betiere, abadeak bertakoei udalerriko lursailetan eta Anizlarrean lurra lantzeko eta egurra biltzeko baimena ematen baitziren. 1630. urtera arte, Goizueta udalerrriak Arano herria bere jurisdikziopean eduki zuen.

Sorgin ehiza ere izan zen

1609an, Goizuetan sorginkeria auzi bat gertatu zen. Kasu hartan, Katalina Alduntzin eta haren semea, Goizuetako bikarioaren eta erretorearen senideak, ohorearen kontrako laido eta irainengatik borrokatu ziren Johannes Zubillagaren eta Magdalena Leitzaren aurka. Bi horiek Katalinari eta haren semeari sorginak izatea egotzi zieten. Epaimahaiak Johannes Zubillaga eta Magdalena Leitza bi urteko erbestera kondenatu zituen.

Suteak

1555eko irailaren 29an San Migel egunez, Magdalena etxean zegoen ospitalea erre eta suntsitu zen. Bi hilabetera, Urrutinea etxean sutea piztu zen. Beste 24 etxe ere osorik erre ziren eta 12 erdizka. Garai hartan 120 etxe zeuden, eta asko egurrezkoak.

Uxue Aizkorbe, Maria Aizkorbe eta Itxaso Legarretak idatzia.



Iñauteriak eta mozorroak

IÑAUTERIK

Goizuetako iñauteriak, hausterre-egunaren aurreko hiru egunetan ospatzen dira, hau da, otsailaren azken astean, igandetik asteartera.

Protagonistak mozorroak deitzen diren gazteak dira. Kamiseta eta galtza zuriz, gerrikoa eta txapela gorritz jantzirik, herrian eta baserrietan zehar ibiltzen dira iñauterietako lehen egunean. Biharamunean, herrian *segizioa* egiten dute. Hau da, hildakoaren

atzetik doan lagun taldea. Zahagi dantza eginez, ikazkin bat irudikatzen duen *Zaia* pertsonaiarekin, batzuetan *zomorro* ere deitua, bizkarrean zahagi handia duela egiten dute. Dantza bukatzean, *Zaia* segiziotik atera eta korrika ibiltzen da neska eta emakumeen atzetik musuak emateko. Eskian jasotako diruarekin, hurrengo larunbatean *kontuak* ospatzen dituzte, non jasotako dirua kontatu eta horrekin elkarrekin afaldu eta festa luzatzen dute.

GOIZUETAKO IÑAUTERIEN ANTOLAKETA

Igande arratsaldean hasten dira inauteriak. Herriko gazte kuadrilla batek iñauteriei hasiera emateko zahagi dantza egiten du. Egun honetan, gazteek afaria izaten dute. Nerabeek "Mozorroen afaria" esaten diote. Bitartean, musika egoten da plazan.

Astelehen goizean gazteek "mozorroen gosaria" izaten dute. Gosaria amaitzean baserriz baserri abiatzen di-

ra. Hau aspaldiko tradizioa da, baserrietan dantzatu, jan... egiten dute. Denak gai berdinez mozzoratzen gara. Inauteri aurretik herritarrek edo guraso elkarte-koek bilera bat egiten dute, gehien bozkatzen den mozorroa egiten da egun horretan. Herri osoan zehar dantzatu egiten dute. Ilunabarrean, mozorroak iristen dira herrira. Bertan, dantzatu egiten dute afaltzera joan aurretik.

Astearte goizean, mozorroek gosaria izaten dute berriro. Herritik dantzatu egiten dute, baserrietan egin zuten bezala. Eguerdian, bazkaria izaten dute. Arratsaldean, gazteek zahagi dantza egiten dute. Ordu horretan hurbiltzen dira herritar guztiak. Arratsaldean zehar musika egoten da plazan.

Egun bat gehiago izaten dute gazteek inauterietan. Larunbata "kontuen eguna" izaten da. Eguerdian, bazkaria izaten dute. Arratsaldean, txarangarekin batera gazteak herritik ibiltzen dira. Gauean, parranda izaten dute.

ZAHAGI DANTZAREN HISTORIA

Inauterietan ikatza egiten zuen pertsona bat irudikatzen du. Bizkarrean eramaten zuen zahagia ardoz betetzen zuen basora eramateko. Mozkortutakoan nesken atzetik hasten zen lasterka musu eman nahian. Azkenean herriko gazteek edo mutilek makilaz jotzen zuten bizkarrean neskek pakean uzteko.

Zahagi dantzaren musika edo doina Don Bixente apaizari esker dakigu norik sortutakoa den. Antonio Segura botikarioak egina omen da. 1912. urte aldera R.M. Azkuek jaso zion Tomas Arribillaga "kesero"ri zahagi dantzaren musikaren partitura.

ARANOKO IÑAUTERIAK

Aranoko inauteriak otsailaren bigarren asteko larunbatean ospatzen dira, egun bakar batean.

Goizean, 08:00ak aldera Beltsoko bordatik abiatuko dira zomorrak puska biltzera. Azken urteetan bezalaxe, Izer eta Alabier trikitilariak izanen dituzte bidelagun. Surotik, Bentaberri auzora joanen dira eta gorakoan Xau-



zar baserrietik Latxe aldera egiten dute. Larratxuri baserrietik Beheko Herriko etxeetara joanen dira, itzulia herrian bukatzeko. Bidean fandango, arin-arin, kanturik eta konturik ez da faltako. Eguerdian, bazkaria izanen dute zomorroek eta joan nahi dutenek bi egun lehenago eman beharko dute izena

Kontsejun, 17:30ak aldera zahagi dantza egiten dute gaztetxoek eta eguna bukatzeko afari herrikoia izanen dute elkarteetan eta afalondoan bingo musikatu.

ARANOKO ZAHAGI DANTZA

Zahagi dantza (larruazaleko dantza) Aranoko dantzatzen den dantza da

inauterietako larunbat arratsaldean. Mozorroak (mozorrotuta), zuriz jantzita eta makila bat eskuan, kalera ateratzen dira bi errenkadatan. Haien inguruan edo kaleetatik edo aldameneko etxeetatik irten eta gizon - emakume mozzorrotutako bi pertsonaiek zahagia daramate bizkarrean. Ondoren, zahagi dantza hasiko da. Mozorro zuriek makilaz jotzen dituzte musikaren erritmora, zahagi dantzariak beren artean dantza egiten duten bitartean. Momentu batean mozorro zuriek usainarekin jotzen dute beren makilekin.

Haizea Muñoz, Nerea Etxeberria, Maria Apeztebea eta Maddi Asiaren idatzia.

Hitzak eta esapideak

Goiztarrez dauden hitzetan letrak falta dira.
Saiatu betetzen. Zein dira?

Batuan

Gaztain txarra

Urdaiazpiko eta hirugiharraren azala

Aitzurraren antzekoa baina hortzekin

Harago

Apaparrutxa

Gazta egin ondoren gelditzen den ura

Ubeldua

Ile argia daukana

Borobila

Arnasa

Ile luzea eta harroa duena

Goizuetarrez

A__ala

Kal__a

M__koa

Aun__zo

Zapa__urua

Gatz__ra

Uel__ua

Kaska__uria

Ko__okoa

Esna__ia

Zarpa__ua

Esamoldeak

Zein da esamolde bakoitzaren esanahia?

1. Gainezka egin.
 2. Begitan hartu.
 3. Utikan.
 4. Hazkura izan.
 5. Inoren platerean sartu.
 6. Hitzetik hortzera.
 7. Txantxetan ibili.
 8. Gaur zortzi.
 9. Firin-faran ibili.
- a. Brometan ibili.
 - b. Gaur asteazkena bada, datorren asteazkena.
 - c. Bat-batean, tupustean.
 - d. Kalem ibili ezer onik egin gabe.
 - e. Gorrotoa, kontrako sentimendua izan.
 - f. Neurritz kanpo isuri.
 - g. Besteen arazoetan sartu.
 - h. Alde hemendik.
 - i. Hatz egiteko nahia.

Esaera zaharrak

Zein da esaera zahar bakoitzari dagokion bukaera?

Batuan

1. Gezurra esan nuen Getarian
2. Eroriz, eroriz
3. Etxean ikusia
4. Zozoak beleari
5. A zer paraa
6. Azaroa hotz
7. Etxean otso
8. Zer ikusi
9. Zereko zera zertan dela
10. Otsoa aipatu
11. Sua eta ura

Goizuetarrez

- a. umeez ikasia.
- b. negua motz
- c. zereko zerarekin
- d. eta otsoa atean
- e. kalean uso
- f. eta ni baino lehenago zen atarian.
- g. belaunetik behera
- h. ipurbeltz.
- i. oinez ikasten da
- j. hura ikasi.
- k. karakola eta barea.

ERANTZUN ZUZENAK:
HITZETAN FALTA DIREN LETRAK:
A ALA, KALUA, MAROA, AUNTZO,
ZAPABURUA, GATZURRA, UELDUA,
KASKAZURRIA, KOROKOA, ESNASIA,
ZAPAZUA
ESAERA ZAHARRAK:
1-f; 2-i; 3-a; 4-h; 5-k; 6-b; 7-e; 8-j; 9-c;
10-d; 11-g
ESAMOLDEAK:
1-f; 2-e; 3-h; 4-i; 5-g; 6-c; 7-a;
8-b; 9-d



Goizueta, euskararen arnasegune

Herri euskalduna da Goizueta. Bertakoek esanen dizute, baita herriaren berri duen kanpoko edonork ere. Baina herri euskalduna izateaz gainera, euskararen arnasegunea ere bada, eta hori, gehixeago esatea ere bada. Zertaz ari garen azaltzen saiatuko gara.

ARNASEGUNEAK. ZER DIRA?

Ez dago formula edo definizio erabateko edo matematiko bat arnaseguneak zer diren esateko, baina normalean euskararen ezagutza eta erabilera % 80 ingurukoa duten herriak sartzen dira multzo horretan. Ez da nahikoa herritar gehien-gehienek euskaraz jakitea, erabilerak ere oso altua izan behar du. Herriok eta herriotako bizilagunok “arnasa gara” euskararentzat, hemen gure hizkuntzak arnasa hartzen du, hemen gure hizkuntzari arnasa ematen diogu.

Lehen hizkuntza

Arnaseguneetan, eta Goizuetan ere hala da, bizilagun gehienek etxean ikasi dute euskara, eta erabat naturala izaten da euskara eguneroko bizitzako espazio guztietan erabiltzea. Badira ere, jakina, euskara etxetik jaso ez dutenak, baina horiek ere askotan euskarak irabazi egiten ditu eta euskara naturaltasun berdinarekin erabiltzera iritsi daitezke.

Euskararen transmisioa

Herri hauetan, arnaseguneetan, euskara belaunaldiz belaunaldi transmititu da, gurasoek seme-alabei eman diete. Hizkuntza bizia da, eguneroko erabilera horretan berritzen dena, eta horri esker berri eta egokitu ere egiten da, garai eta ohitura berrietarako prestatuz.

Hauskortasuna

Arnaseguneak ezinbestekoak dira euskararentzat, esan bezala, baina aldi berean, besteak beste normalean txiki samarrak izaten direlako, nahikoa hauskorak ere badira. Alegia, aldaketan aurrean ohi baino sentikorragoak dira, eta erraza da aldaketa sozioekonomikoen eragina bertan handia izatea. Hala gertatu da azkeneko hamarkadetan, eta herri euskaldun ugari asko nabaritu du eragin hori.

ARNASEGUNEEN GARRANTZIA

Arnaseguneak oso garrantzitsuak dira euskararen normalizazioan eta biziberritzean. Garrantzitsuak baino gehiago, ziur asko, ezinbestekoak direla ere esan genezake. Eta zergatik dira, bada, hain garrantzitsuak? Badaude arrazoi batzuk:

- Hizkuntza guztiek bezala, euskarak ere bere “lurralde propioa” behar du, nagusi izanen den lurruna edo es-

pazioa, euskarak bizitasun osoa izanen duen tokia. Hori dira arnaseguneak, besteak beste. Gune hauetan dauka bermatua euskarak bizitasun handi hori, noizbait bizitasun hori beste eremu batzuetara zabaltzeko itxaropenarekin, noski. Arnasa hartzearen ideia hori honekin guztiarekin lotuta dago.

- Arnaseguneak, eta arnaseguneetan bizi diren herritarrak, eredu dira euskararen normalizazioan. Bertan euskaraz bizi daitekeela frogatzen ari dira, eta eguneroko bizitzako eremu guztietan euskaraz normaltasunez egin daitekeela. Erreferentzia bat dira, horrenbestez, normalizazioaren bidean hasi berri direnentzat edo atzerago dabiltzantzat.
- Euskara bizi-bizirik dagoen herrietan euskaraz egitea ohikoa da, hori da arau soziala, ahozko harremanetan batez ere. Erabilera indartsu horri esker euskarak molde berriak sortzen ditu, eta biziberritu ere egiten da, garai berrietarako egokituz.
- Arnaseguneetako herritarrek gainerako euskaldunekin ere harremanak izaten dituzte, eta askotan euskararen erabilera handitzeko eta indartzeko akuitu izaten dira, euskara noranahi eraman eta hedatzen dutelako, eta bertako erabilera normal eta naturala garraiatzen dutelako.

Uztapidek Artikutzari jarriak



Manuel Olaizola "Uztapidek" Artikutza gaitzat hartuta 22 bertsoz osatutako sorta argitaratu zuen Oiarzunera bizitzera etorri ondoren. Ondorengo 8 hauek bereizi ditugu lan horretatik.

Urterik ilunenetan garai bat markatu zuen bertsolari honi buruz esan, 1909an jaio zela Zestoako Endoia auzoko Uztapide baserrian. Txapelketa Nagusia irabazi zuen 1962, 1965 eta 1967an eta 1935etik 1980 arte herriz herri kantatu zuen Basarri edo Lasarterekin bikotea osatuz batez ere.

1952an Oiarzungo Ergoien auzora ezkondu zen eta bertan hil zen 1983an.

I

Artikutza'ra buelta bat eman nuen lengo egun batean, nerekin ziran lagun batzuri jardun nintzaien esaten: Au baño toki ederraguak ez dira asko izaten, asi bear det mendi onetako berriak zerbait ematen.

II

Esan bezela, eman nai ditut Artikutza'ko berriak: danak or zeuden mendi eder ori erosteko egarriak; gauza auek len seguru asko dauzkatzu irakurriak: nola atzenian erosi zuen Donostia'ko erriak.

III

Iru millako eta zazpireun ektareako basua, ogei ta amabi kilometro da mendien bira osua; Donostia'ko erateko ura ortik daukate jasua, orragatik da mendi aundi ori olako baliosua.

IV

Lau basarri're baziran emen errekek bezela berdin, Urdallue ta Elama eta Egazpia ta Goizarin; pameliak or bizitzen ziran lengo nagusiarekin, gero Donosti'k erosi zuan da baserriak desegin.

V

Mendiko ganaduaz gaiñera minak ere or bazian, berreun gizon edo geiago lanian ari bazian; beruna edo plomuen billa Elama'n jardun oi zian, gero Donosti'k erosi zuan da minak gelditu zian.

VI

Mendi orretan daude pagoak, aritzak eta gaztaiñak, danetatikan ere ikusten dirade zugaitz bikaiñak; frutua duten zugaitzarekin ornituta mendi-gaiñak, basa-urdiak gozatzè ituzte ederki beren ezpaiñak.

VII

Galeraziak daude Artikutza'n bai eizak da bai arrantzak, ori dala-ta ango goardak egon oi dira garratzak; ango erreka koskorrak dira amorraitan aberatsak, baña arrosa danak dituzte bakoitzak beren arantzak.

VIII

Ango pestetan ikusitzen da plazan jendia gaiñezka, egun orretan bildutzen dira emengo mutil da neska; Dagonillen ogei ta zortzia, ori esan bearrrik ezta, bertso onekin bukatutzen da gure Artikutz,ko pesta.

2000. urtea



Indar Gorri futbito taldea.

Beste askotan bezala, Ttipi-Ttapa aldizkarian Esteban Arozenak argitaratutako kontuak erabiliko ditugu atal honetan, 2000. urtean Goizuetan gertatutakoaren berri jakiteko.

Ba, notizia ezin hobearekin eman zion urteari hasiera Ttipi-Ttapak; 14 milioi pezeta balio zuen anbulantzia erosteko erabakia hartu baitzuen Udalak 1999ko abenduaren bukaeran. 9 milioi Nafarroako Gobernuak ordainduko zituen eta anbulantzia hori erabiltzeko hainbat gaztek osatutako boluntario taldea ikastaroak egiten ari zen.

Hilabete berean, gainera, herrian gasa zabaltzeko eta telefono mugikorren koberturarako aurreneko eskaintzak ailegatu ziren udaletxera.

Martxoaren hasieran ospatu ziren Inauteriak giro eta egitarau ederrarekin: Xapo, Trikizio eta Trakets talde-



Bertsos Paper Lehiaketaren sarituak.

kin berbenak, Zizkuitz txaranga, Berri Txarraken kontzertua e.a.

Martxoan jokatu zen urtero Umore Onak antolatzen zuen futbito txapel-

keta. 6 taldek hartu zuten parte eta Indar Gorrik eskuratu zuen garaipena.

Apirilean Nafarroako Bertsolari Txapelketako finala ospatu zen eta 800 zaletik gora elkartu ziren pilota plazan. Eta gai bere-tsuarekin segituz, argazkian agertzen diren neska-mutiko hauek sarituak suertatu ziren eskualdeko Bertso Paper Lehiaketan.

Maiatzean 9 umek ospatu zuten lehen jaunartzea; ekainean, Laxaro Salaberriak ingurumari hauetako markak hautsi zituen, 15 egunean oinez osatuz Orreagatik Santiagorako bidea. Egunean 50 km batez beste.

Udaran festak nagusitu ziren, jakina, beste berri guztien gainetik. Abuztuaren 12tik 19ra ospatu ziren eta kalitate handiko ekitaldiz gainezka beteazaltzen zen egitaraua egunerok.

Irailean jakin zen REPSOLEk eramanen zuela gasa etxeetara (200 familiak sinatu zuten eskaera gero) eta Nafarroako Gobernuak diruz lagunduko zuela gero Zabala eta Goikoetxea enpresak egingen zuen Herriko Etxea berritzeko obra (38 milioi pezeta).

Eta beste obra handi bat ere esleitu zuen Udalak beranduxeago, Madalenetik Zibola bi-tarteko zeharbidea hain zuzen. Asfaltos Camperok egingen zuen eta 80 milioi pezetako aurrekontua zuen lan honek.

ezetz asmatu

EZETZ ASMATU

Argazki zaharrenetak, jakina, aldaketa handiak gertatu dira, jendea asko aldatu da. Baina duela hamar urte egindakotik ere, ez pentsa, nabari da urteak ez direla alferrik pasatzen. Argazkitan goizuetar mordoxka bat daukazue, ea baikoitza nor den asmatzeko gai zareten.



ezetz asmatu





ZURE TXANDA

ANGEL MARI LOYARTE (Goizuetan)



Non jaio zara? Eta non bizi?

Goizuetan jaio nitzan, 1977ko urriaren 22an eta 2003an Leitza jarri nitzan bizitzen.

Orduan esan dezakegu leitzarra zarela?

Ni, Leitza bizi den Goizuetarra!! Leitza inoiz ez... kar, kar.

Arrotz sentiarazi al zaituzte inoiz?

Ez, ez naiz arrotz sentitu inoiz. Egia esan jendeak esandakoei ez diet kasu handiegirik sekula egin izan...

Zer sumatzen duzu faltan?

Faltan bota... Egia esan, asko... familia eta lagunak. Goizuetan neretzako oso herri berexia eta oso gogokoa dut, nahiz eta bizi nitzan lekua eta inguruan daukian jendea nere gustokoak izan.

Esadazu hitzaren bat herri batean esaten dena eta bestean ez.

Leitza "toroak" zezenei eta Goizuetan "gafak" betaurrekoei.

Pike pixkot badago bi herrien artean, hizkeragatik ote? Kirolariengatik ote? Zein da zure iritzia?

Ba... nik uste beti izan dugula pike pittikot elkarren artean ta Aimar eta Abel profesionaletan topatu dianen ta Aimarrek beti Abel eliminatzen zun hortan... ze esanik ez! Inori ez baiziu galtzea gustatzen ta Leitza-rreri gutxio! kar, kar.

Bi herrietan kirolari bikainak daude. Non dago sekretua?

Nik uste, jende sano, sasoikoa eta langilea dagoela bi herrietan, ta horregatik lan asko egin ezker... emaitzak ere etortzen diala!

Zure ustez, zein da herririk parranderoena?

Parranderona ta parrandaik hobenak Goizuetan, du daik gabe! Nahiz eta asko galtzen ari den... Tabernak ere gutxio...


Desafio bat bota beharko bazenie leitzarrei, zein izango zen?

Buuff... ez naiz sekula desafio zalea izan ta Leitza-rreri gutxio. Ia edadek ere ez du asko laguntzen desafioka ibiltzeko!

Gure artean hau: nongo ura da hoberena?

Nik ardo beltza nahio! Biño Goiko-itturriko ura bezelakoik inon ez!

AITOR ARANBERRI (Leitza)



Non jaio zara? Eta non bizi?

Leitza jaio eta Goizuetan, azken 10 urte hauetan, bizi.

Orduan esan dezakegu goizuetarra zarela?

Ez... oraindik ez.

Arrotz sentiarazi al zaituzte inoiz?

Ez arrotz sentitu eta ezta sentiarazi ere.

Zer sumatzen duzu faltan?

Dudarik gabe.... Nere familia eta kuadrila!

Esadazu hitzaren bat herri batean esaten dena eta bestean ez.

Goizuetan "patu", Leitza "jarri" eta "ure" Leitza, Goizuetan "ura".

Pike pixkot badago bi herrien artean, hizkeragatik ote? Kirolariengatik ote? Zein da zure iritzia?

Nere gazte denboran pikea bazegoela esango nuke, baina orain, ikusten dut, hemengo gazteak Leitza joaten direla ikastera eta nik ez dut sumatzen pike hori.

Bi herrietan kirolari bikainak daude. Non dago sekretua?

Uran! Zonaldeko, mendietako urak zerbait espeziala izango du!

Zure ustez, zein da herririk parranderoena?

Biak! Bietan parranda bikainak egin ditut baina bietatik bat aukeratzeko... Goizuetan aukeratu nuke, zeren, herri honetan zerbait berezia baldin badago, jende guztia, adin desberdinekoekin elkartzen da eta horrek giro bikaina sortzen du. Herri giro mundiala!

Desafio bat bota beharko bazenie goizuetarrei, zein izango zen?

Goizuetarrei, beste aukera bat emango nieke. Garai batean makilatzen gelditu zen andrearen aitzakia ez jartzeko! Bi pertsona abiatzea, bat Goizuetatik eta bestea Leitzaatik, muga berria ezartzeko!

Gure artean hau: nongo ura da hoberena?

Edateko Leitza-rreri eta bainatzeko Goizuetan-ko!